

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Abadeen erromeria

JEAN PIERRE ARMAND DAVID HALSOUET (1826-1900) apaiz naturazale ezpeletarra zientzialari euskaldunen artean gorenetakoa izango dugu. Hil zen urte berean Manex Hiriart-Urrutik *Eskualduna* astekarian idatzi zuen “Eskual-herritik behinere jalgi diren jakintsun handienetarik bat” zela. Eta guk, berari buruz zipitzik ere jakin ez. Gure utzikieriaz baita ere, frantses zientzialari bezala ageri da ia beti.

Mukizapien zuhaitz dotoreak bere izena darama, *Davidia involucrata*. Ez da bakarra baina.

Azkenaldi honetan, landare inbaditzaileekin aztoramena zabaldu nahi den garaiotan, gure “gure” ekosistemetako landareen arerio izendatu denetako batek ere bera dakarkigu gogora: *Buddleja davidii*. *Buddleja* generoaren izena Essexgo Farmbridgeko Adam Buddle (1660-1715) apaiz botanikariaren ohorez jarritakoa da. Zer hitz egina eman du bai apaiz arteko landare honek ere.

Armand Davidek Txinan aurkitu zuen 1869an, baita haren deskribapena idatzi ere. Urte batzuk igaro

ziren, ordea, landarea Europara ekarri arte. 1890ean aipatu zen lehenengoz gure kontinentean. Eta Jean André Soulié izeneko beste abade batek 1895ean Vil-morin muintegietako jabeari bidalitako hazi batzuetatik zabaltzen hasi zen. 1915etik aurrera barra-barra. Lehengo mende horren amaiera aldera “inbaditzaile” izendatzen den arte. AEB eta Europako toki askotan

ezin ikusi dute eta bere aurkako gerra publikoa eta subentziona-tua da. Geurean, adibidez. Landugabeko sail eta lugorrietan erraz asentatzen da, eta agudo zabaldu. Ez da harritzekoa, landare bakoitzak, batez beste, hiru milioi hazi ematen ditu urtero.

Txinerazko bere izenak “arrai-nak mozkortzen dituen landare” esan nahi du. Bere usainak inguru samarrean harrapatzen

duen edozein horditzeko duen kemena adierazten du. Batzuek, baina, gustura galtzen dute burua usain gozoegi horretan: tximeletek. Tximeleten zuhaitza deitzen zaio. Loretan dagoenean inguruan izaten duen tximeleta eta intsektu dantza ikusteko modukoa da. Udako solstizioko erromeria polita.



WWW.123RF.COM

Kalparra

“Aurten parte onekoa ez den zerbait badator” eta antzekoak entzun ditut udaberri honetan. Loraldi bikainak, fruituak oparo, hostajeak jori, uzta aberatsak... eta nekazariaren badaezpadako pentsaera horrek ezin gozatzen utzi gaitu. Uztaren peskizan, bizimodua aroaren araberari lotuta bizi dena beti da nokieroko botikaren beldur.

Aurtengoan ez da, oraindik, aldrebeskeria handirik izan eta ustela ez den ustearen beste erdiaren bidetik doa dena. Baita, *Castanea sativa*, gaztainondo loraldia ere, ikusteko modukoa. Urtero, egunik luzeenetan ileordekoa janzten dute, aurten inoizko kalparrik trinkoena. Hori bai, kolorea ez dute aldatu, betiko rubio-rubio ageri dira. Hermafroditak izanagatik kalparra lore ar harroek osatzen baitute, alderdi arra lorietan den egun bakanak. Alde emeak isil asko fruituak haziko ditu. Aurtengo uzta? Ikuskizun dago; gero gerokoak!

Ederki zioen lehengo batean Pello Zabala maisu handiak: “... lurrazalak berez urtero janzten duen kalpar natural aurten tximatsuago...”.



JAKOBA ERREKONDO